

BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN SAILA

5217

EBAZPENA, 2016ko azaroaren 30ekoa, Osasuneko sailburuordearena, zeinaren bidez laguntzak ematen baitira zenbait ikerketa- eta garapen-proiektutarako, zehazki espezializazio adimenduneko Euskadi RIS3 estrategiako biozientziak-osasuna lehentasunari lotutako proiektuetarako.

Osasuneko sailburuaren 2016ko uztailaren 12ko Aginduaren bidez (2016ko uztailaren 29ko EHAA, 144. zk.), espezializazio adimenduneko RIS3 Euskadi estrategiako biozientziak-osasuna lehentasunari lotutako ikerketa- eta garapen-proiektuetarako laguntza-deialdia egin zen.

Agindu horretako 14. artikuluan ezarrita dagoenez, laguntzak Osasuneko sailburuordeak esleituko ditu, Balorazio Batzordeak proposatuta, eta ebazpena EHAA-n argitaratuko da.

Aurkeztu diren eskabideak ezagututa eta Balorazio Batzordeak egindako proposamena aztertuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— I. eranskinean adierazten diren ikerketa-proiektuak finantzatzea.

Bigarrena.— II, III, IV eta V. eranskinetan aipatzen diren eskabideak ezestea, han adierazitako arrazoiak direla-eta.

Hirugarrena.— 2016ko uztailaren 12ko Aginduaren 17. artikuluekin bat etorriz, finantzatutako proiektuen justifikazio-memoria zientifiko eta ekonomikoak 2016ko abenduaren 16ko 13:00ak baino lehen Osasun Sailean aurkeztu beharko direla ezartzea.

Laugarrena.— Laguntzak agindu horretako 16. artikuluen arabera ordainduko dira, 2016an zehar (justifikaziorako adierazitako egunera arte) gauzatutako jardueren justifikazioa ematen denean.

Bosgarrena.— Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango diote Osasuneko sailburuari, hilabeteke epean, ebazpena EHAA-n argitaratzen den egunetik hasita, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera. Halere, horrek ez du eragotziko egokitzea jotzen duten beste edozein errekurto jartzea.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko azaroaren 30a.

Osasuneko sailburuordea,
GUILLERMO VIÑEGRÁ GARCÍA.

I. ERANSKINA

Finantzatu diren proiektuen zerrenda:

Espediente-zk.: 2016222001 Izenburua: Estrategia terapeutiko dual berria gaixotasun hepatiko polikistikoez: UDCAtik eratorritako HDAC6ren inhibitzaileak (HDAC6i-UDCA)	
Agente onuraduna	Diru-laguntza (€)
Biodonostia Institutua Elkartea (Koord.)	64.885
Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea	12.188

Espediente-zk.: 2016222002 Izenburua: EAEn gaixotasun arraroak detektatu eta tratatzeko hurbilketa integrala (Notrare)	
Agente onuraduna	Diru-laguntza (€)
CIC Biogune, Biozientzietako Ikerketa-Zentro Kooperatibo Elkartea (Koord.)	117.125
Berrikuntza eta Ikerkuntza Sanitariorako Euskal Fundazioa	45.508
Tecnalia Research and Innovation Fundazioa	24.292
Atlas Molecular Pharma SL	0

Espediente-zk.: 2016222007 Izenburua: Etengabeko ikaskuntzarako sistema sanitarioak garatzeko datuen zientzia-teknikak (Learning Health Systems)	
Agente onuraduna	Diru-laguntza (€)
Berrikuntza eta Ikerkuntza Sanitariorako Euskal Fundazioa (Koord.)	44.679
Mondragon Goi Eskola Politeknikoa Jose Maria Arizmendiarieta S Coop	32.212

Espediente-zk.: 2016222008 Izenburua: PET/CT bidezko biopsia gidaturako gailu bat garatzea eta karakterizatzea	
Agente onuraduna	Diru-laguntza (€)
Berrikuntza eta Ikerkuntza Sanitariorako Euskal Fundazioa (Koord.)	62.916

Espediente-zk.: 2016222009 Izenburua: Bektore ez-biral bat diseinatzea eta ebaluatzea nanopartikula lipidoetan oinarrituta Fabry gaixotasunaren tratamendurako gene-terapiaren bidez	
Agente onuraduna	Diru-laguntza (€)
Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea (Koord.)	10.679
Berrikuntza eta Ikerkuntza Sanitariorako Euskal Fundazioa	8.009

Espediente-zk.: 2016222012 Izenburua: Bio-erreaktore automatizatua zelula atxikientzat	
Agente onuraduna	Diru-laguntza (€)
Biomaterialen Ikerketa-Zentro Kooperatiboa - CIC Biomagune (Koord.)	61.131
Biodonostia Institutua Elkartea	23.983
Tecnalia Research and Innovation Fundazioa	0

Espediente-zk.: 2016222022 Izenburua: INCAR - Monitorizazio-sistema eta gidaketa adimenduna bihotz-gutxiegitasuna duten pazienteentzat	
Agente onuraduna	Diru-laguntza(€)
Vicomtech Interakzio Bisual eta Komunikazioetarako Teknologien Zentroaren Fundazioa (Koord.)	36.856
Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea	3.479
Berrikuntza eta Ikerkuntza Sanitariorako Euskal Fundazioa	25.656

Espediente-zk.: 2016222030 Izenburua: Deep Osasuna: medikuntza pertsonalizatua ezagutzan oinarritua (DEEPOS)	
Agente onuraduna	Diru-laguntza (€)
Biogurutzeta Osasun Ikerketarako Institutu-Elkartea (Koord.)	52.462
Ibermatica de Innovación SL Institutua	49.078
Tecnalia Research and Innovation Fundazioa	33.737

Espediente-zk.: 2016222035 Izenburua: Obesitatea, epidemia globala: Molekularen eta parametro dinamikoen karakterizazioa estrategia diagnostiko eta terapeutiko pertsonalizatuak garatzeko	
Agente onuraduna	Diru-laguntza (€)
Biogurutzeta Osasun Ikerketarako Institutu-Elkartea (Koord.)	25.160
Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea	16.003
Fundación Biofísica Bizkaia / Biofisika Bizkaia Fundazioa	23.725
Fundación Azti Azti Fundazioa	23.014
BCAM Elkartea-Basque Center for Applied Mathematics	7.113

Espediente-zk.: 2016222039 Izenburua: Osasun-datuak eta ikerketa-proiektuetan sortutako omikoak berrerabiltzea, horiei erabilera klinikoa emateko eta analitika aurreratuko etorkizuneko proiektuetan erabiltzeko	
Agente onuraduna	Diru-laguntza (€)
Berrikuntza eta Ikerkuntza Sanitariorako Euskal Fundazioa (Koord.)	76.512
Vicomtech Interakzio Bisual eta Komunikazioetarako Teknologien Zentroaren Fundazioa	12.243
Biozientzietako Ikerketa-Zentro Kooperatiboa - CIC Biogune	43.462
Biodonostia Institutua Elkartea	2.377

Espediente-zk.: 2016222043 Izenburua: Subjektu heldu ahulak identifikatzeko tresnak garatzea	
Agente onuraduna	Diru-laguntza (€)
Biodonostia Institutua Elkartea (Koord.)	90.715
Tecnalia Research and Innovation Fundazioa	52.471
Matia Institutu Fundazio Gerontologikoa	27.305
CIDETEC Fundazioa	26.349
Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea	11.377
Vicomtech Interakzio Bisual eta Komunikazioetarako Teknologien Zentroaren Fundazioa	15.046

Espediente-zk.: 2016222044 Izenburua: INvitro D iagnostics for C ancer T esting (INDICATE): Biosentsore ekonomiko, sentzible eta azkarra garatzea medikuntza pertsonalizatuarekin lotutako odol-mutazioak detektatzeko	
Agente onuraduna	Diru-laguntza (€)
Biodonostia Institutua Elkartea (Koord.)	100.068
Biogurutzeta Osasun Ikerketarako Institutu Elkartea	12.548
Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea	54.750
Biomaterialen Ikerketa-Zentro Kooperatiboa - CIC Biomagune	35.453
Basque Center for Macromolecular Design and Engineering, Polymat Fundazioa	45.434

DIRU-LAGUNTZA, GUZTIRA: 1.410.000 €

II. ERANSKINA

Aurrekonturik ez zegoelako finantzatu ez diren eskaeren zerrenda:

Espediente zk.	Izenburua	Agente koordinatzailea
2016222003	Erresonantzia magnetiko bidezko metodo diagnostiko berria, gehiegizko pisua duten aurre-nerabeen arrisku kardiometabolikoari lotutako esteatosi hepatikorako	Berrikuntza eta Ikerkuntza Sanitariorako Euskal Fundazioa
2016222011	Datu kognitibo, lipidomika, inflamazio eta neuroirudiaren profil konbinatu berria Alzheimer gaixotasunaren biomarkatzaileen erabilera goiztiarra optimizatzeko	Cita Alzheimer Fundazioa
2016222015	Irtenbide teknologikoa eskizofrenia duten pazienteen birgaixotzeak prebenitzeko telemonitorizazioaren bidez	Berrikuntza eta Ikerkuntza Sanitariorako Euskal Fundazioa
2016222019	NK zeluletako akatsekin erlazionatutako immunoeskasiak modelatzea plaka batean Petri/Modelling Human Natural Killer Cell Deficiencies in the Petri dish	Berrikuntza eta Ikerkuntza Sanitariorako Euskal Fundazioa
2016222023	Garuneko tumoreen autoberrikuntzaren inhibizioan oinarritutako estrategia terapeutiko berri bat ezartzea	Biodonostia Institutua Elkartea
2016222024	Lankidetza-ikerketa irudi-teknika eta biomaterialetan prozesu desmielinizatzaileak diagnostikatu eta tratatzeko	Biodonostia Institutua Elkartea
2016222025	Irtenbide teknologikoa kolon eta ondeseteko minbiziaren baheketan kolonoskopiaren kalitateari jarraipena egiteko eta hori egokitzeko	Deustuko Elizaren Unibertsitatea
2016222028	Erditzearen indukzioa: eredu iragarle berri bat garatzea ekografiaren bidez. Kod: INPRECO	Biogurutzeta Osasun Ikerketarako Institutu Elkartea
2016222029	Myoblots: advanced dystrophin quantification for streamlined screening of RNA treatments	Biogurutzeta Osasun Ikerketarako Institutu Elkartea
2016222031	Zelula ama mesenkimaletan oinarritutako terapia zelularra, osteogenesi inperfektua duten paziente pediatrikoei aplikatua: Tratamentua eta ekintza-mekanismoa	Biogurutzeta Osasun Ikerketarako Institutu Elkartea
2016222033	Ahotsaren berreskurapen, biltegitratze eta errehabilitazioa - Restore	Biogurutzeta Osasun Ikerketarako Institutu Elkartea

Espediente zk.	Izenburua	Agente koordinatzailea
2016222034	Aitzindari hematoiopetiko autologoaren transplantea gaixotasun arraroen tratamenduan: NK zelulen papera	Biogurutzeta Osasun Ikerketarako Institutu Elkartea
2016222036	Tratamenduaren eboluzioa eta tratamenduarekiko erantzunaren markatzaile igarleak gertakari psikotikoetan	Biogurutzeta Osasun Ikerketarako Institutu Elkartea
2016222037	InTRAINER terapia neuroerrehabilitatzailerako funtsezko ikerketa Makina-garunean oinarritutako interfazea iktusagatiko mugitzeko desgaitasuna duten pazienteentzat	Biodonostia Institutua Elkartea
2016222038	3D Kultibotik «Muscle-on-a-Chip»-era: Muskulu-ereduak mintz basalaren matrize biologikoekin	Biodonostia Institutua Elkartea
2016222040	Loaldiko buxatze-apnea diagnostikatzeko etxeko etxeko arnasketako poligrafia-sistema sinplifikatu baten kostu/eraginkortasuna baliostea eta ebaluatzea	Biotechnology Institute I Más D SL
2016222042	II Argus erretinako protesia ezartzea erretinosi pigmentarioa duten pazienteei RM funtzionalaren ikerketa	Biodonostia Institutua Elkartea

III. ERANSKINA

Balorazio Batzordeak proiektuak hautatzeko ezarritako lehen fasea gainditu ez duten eskaeren zerrenda:

Espediente-zk.	Izenburua	Agente koordinatzailea
2016222004	EM irudien analisi aurreratua Adimen Artifizialaren teknikekin migraina duten pazienteak automatikoki sailkatzeko.	Berrikuntza eta Ikerkuntza Sanitariorako Euskal Fundazioa
2016222005	Ongizate Proiektua (B&Star): Mugikorrerako aplikazio bat garatzea nahasmendu mental larria duten pazienteen ongizatea hobetzeko	Berrikuntza eta Ikerkuntza Sanitariorako Euskal Fundazioa
2016222006	SMSalud® programaren klinikara transferitzea tabakoa erretzeari uzteko	Berrikuntza eta Ikerkuntza Sanitariorako Euskal Fundazioa
2016222010	Aplikazioak garatzea kolon, ondeste edo bularreko minbizia duten pazienteetan epe labur, ertain eta luzera arriskua estratifikatzeko	Kronikgune Kronikotasunari Buruzko Ikerketarako Nazioarteko Bikaintasun Zentroa
2016222013	Ospitaleetako larrialdietako zerbitzuetako erabaki klinikoetarako eta kudeaketarako laguntza-plataforma	Berrikuntza eta Ikerkuntza Sanitariorako Euskal Fundazioa
2016222014	Lehen mailako arretarako arlo batean farmaziako gastuarekin eta preskripzio farmakologikoaren kalitatearekin zerikusia duten faktoreen ebaluazioa	Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea
2016222016	Asterisk: Tresnak garatzea EVAREkin tratatzen diren abdomeneko aortaren aneurismetan arriskuari jarraipena egiteko eta arriskua ebaluatzeko	Vicomtech Interakzio Bisual eta Komunikazioetarako Teknologien Zentroaren Fundazioa
2016222017	«Machine Learning» exazerbazioen iragarpenean EPOC telemonitorizatuak dituzten pazienteetan: diseinua, garapena, ezarpena eta balioespena	Berrikuntza eta Ikerkuntza Sanitariorako Euskal Fundazioa
2016222020	NGS linfomen diagnostiko, pronostiko eta tratamendua pertsonalizatzeko hobekuntzarako tresna gisa	Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

Espediente-zk.	Izenburua	Agente koordinatzailea
2016222026	Osasuna sustatzeko plataforma digitala garatu eta ebaluatzea	Biogurutzeta Osasun Ikerketarako Institutu Elkartea
2016222027	Amatasunaren prozesuan emakumeek dituzten osasun-beharrak detektatzea eta ebaluatzea: EMAeHealth	Biogurutzeta Osasun Ikerketarako Institutu Elkartea
2016222032	PTEN genean mutazioen analisi genotipo-fenotipoa egitea autismoa duten pazienteei: zehaztasun-terapietan inplikazioak	Biogurutzeta Osasun Ikerketarako Institutu Elkartea
2016222041	CCA-pCare: Zainketaren jarraitutasuna pertsonalizatzea gailu mugikorren bidez	Biodonostia Institutua Elkartea

IV. ERANSKINA

Onartu gabeko proiektuen zerrenda, proiektuak diruz laguntzeko baldintzak ez betetzeagatik:

Espediente-zk.	Izenburua	Agente koordinatzailea
2016222018	Honen jarraipena: Medikamentu berri bat garatzea narriadura kognitibo arinarentzat β amiloideak indusitutako depresio sinaptikoaren mekanismo molekularrean oinarritua	Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea
2016222021	V. motako glukogenosian edo McArdle-ren gaixotasunean immunitate-sistemaren erasana	Achucarro Basque Center for Neuroscience Fundazioa